

ar**o**aa

euskara indarberritzeko
eta euskaldunok ahalduntzeko
marko estrategikoa

Udalerrietan AROA zelan komunikatu



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

emun

Euskara eta
berrikuntza soziala

HASI AURRETIK OHAR BATZUK

Ondoko lerroetan agertzen dena proposamen bat da, erakunde bakoitzak bere egoerara egokitu behar du. Hau eredu bat baino ez da.

Proposamen hau idatzizko testu huts batera mugatzen da. Erakunde bakoitzak hartu behar du, bere irudi korporatibora ekarri eta herritarrei zabaltzeko zein den euskarria erabaki (eta, haren arabera, seguruenik moldatu beharko da testua bera).

Komunikatzeko bide batzuk egon daitezke: proposamen hau idatzizkora mugatzen da, baina egin daiteke bideo bidez, herritarren iritziekin osatu edo bakoitzak egokien ikusten duena

AROA: KOKAPENA

Eusko Jaurlaritzak euskararen erabilera indarberritzen jarraitzeko **AROA** marko estrategikoa onartu du 2024an. Orain arte Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) hamar urtean egon da indarrean, 2012-2022 bitartean. AROA marko orokor hau tokiko administrazio guztientzako baliagarria da. Jarraian duzue balizko **ARRALDE**ko udalak AROA herriaren egoerara egokitu ostean, herritarrei horren berri emateko sortutako euskarria (eredua). Bertan, komunikazio eraginkorra izan dadin aholku batzuk jaso dira.

AROAren marko estrategikoak honako hau jartzen du helburu nagusi modura:

Gure testuinguru eleaniztunean, euskal hiztun aktiboak eta ahaldunduak dituen komunitatea indartzea, gizarte ekitatibo eta justua eraikitzeko helburuz.

- Aroan, **hiztun aktiboa** da modu aktiboan euskararen erabilera sustatzen duena. Hiztun aktiboak bere hizkuntzaren egoeraren kontzientzia dauka, hautu soziolinguistikoa egina dauka, ahalduntze prozesua egiten ari da, eta bere portaeretan ezaugarri hauek ditu: euskara lehenesten du edozein dela ere harremana edo egoera, euskaraz hitz egin dadin beharrezko diren baldintzak sortzen ditu (lehen hitza euskaraz, euskaraz egitera gonbidatu, ulerrizketarako jarrera izan...)
- Aroan, **hiztun ahaldundua** da erabilera-harreman asertibo eta enpatikoak sortzen

dituena. Edozein dela ere gaitasun maila edo hizkuntza ohitura, erabilera bermatua izateko baldintzak sortzeko prozesu psikosoziala egina du edo egite bidean da.

Hori lortzeko, kultura soziolinguistikoko berria eraiki eta zabaldu behar da. Gizarte justuago, ekitatiboago eta inklusiboagoa egiten laguntzeko, munduko hizkuntza-aniztasunaren baitan jardun beharko da.

Izan ere, **AROAk 2034rako lortu nahi du** hurrengoa:

- Euskararen transmisioa ziurtatuta dago.
- Euskal hiztun aktibo gehiago ditugu gizarte esparru guztietan.
- Ezagutzaren unibertsalizazioan aurrerapausoak egin dira.
- Euskaratik urrun zeuden herritarrak zein gurera iristen ari diren herritarrak euskarara hurbiltzen ari dira.
- Gizartean behar handienak dituzten herritarrei behar bezalako babes, laguntza eta erraztasunak ematen zaizkie, eta euskara haiena ere badela sentitzen dute.
- Euskaraz bizitzeko aukera zabalagoak daude; babesgune gehiago ditugu.
- Arnasguneen beheranzko joera eten egin da.
- Euskarak eta euskal kulturak prestigio handiagoa dute.
- Ingurune digitalean euskarazko edukien eskaintza eta kontsumoa hazi egin da

Gure testuinguru eleaniztunean, euskal hiztun aktiboak eta ahaldunduak dituen komunitatea indartzea, gizarte ekitatibo eta justua eraikitzeko helburuz.

ARRALDEko AROA

ARRALDEko udalak **AROA** markora egokitzeko lanketa egin du, **2024ko**tikera.

Oharra:

- Labur-labur azaldu zein izan den herriko AROA markoa lantzeko egin den prozesua: diagnostikoan erabili diren tresnak (galdetegia, herritarren parte hartze saioak, ...), diseinuan erabilitakoak (herritarren edo eragileen parte hartze saioak, kontraste taldea, ...)

Hortaz, **ARRALDEko** udalaren helburu nagusia honako hau izango da **hurrengo urteetarako:**

Oharrak:

- Hurrengo urteetarako horiz jarri dugu: herri bakoitzak ikusiko du zein izango den AROA markoaren iraupena eta horren arabera, zehaztu behar du.
- AROAren barruan herrirako aukeratu den nahi estrategiko nagusiena hona ekarri. Nahi estrategiko hori ahalik eta ulergarriena izan behar da, herritarrek ulertzeko. Horrela ez bada, nahi estrategiko hori moldatu daiteke eta berba lauagoz ekarri.

Hori lortzeko, **ARRALDEko** udalak honakoa egingo du:

Oharra:

- AROAren barruan herrirako aukeratu den misioa hona ekarri. Nahi estrategikoarekin esan bezala, misio hori ahalik eta ulergarriena izan behar da,

berba laukoa. Horrela ez bada, egokitu egin beharko da.

Azkenik, **ARRALDEko** udalak honakoa lortu nahi du **plangintzaldiaren amaierarako:**

Oharra:

- AROAren barruan herrirako aukeratu den ikuspegia hona ekarri. Nahi estrategikoarekin eta misioarekin esan bezala, ikuspegi hori ahalik eta ulergarriena izan behar da, berba laukoa. Horrela ez bada, egokitu egin beharko da.

Era berean, **ARRALDEko** udalak honako estrategia nagusi batzuk izango ditu **hurrengo urteetarako:**

Oharra:

- Esfortzu berezia egin behar da hurrengo urteetarako estrategia nagusiak zeintzuk izango diren zehazteko, zeintzuk izango diren lehentasunez jorratu beharreko helburuak, hain zuzen ere. Estrategia horien idazkeran esfortzu berezia egin behar da ulergarritasuna handitu eta bermatzeko. Kontuan hartu behar da hemen egongo dela herri bakoitzaren AROAren gauzarik komunikagarriena. Hortaz, merezi du buelta bat baino gehiago ematea idatziko denari, gure ohiko lan-idazkeratik aldentzeko.

AROA: KOKAPENA

Amaitzeko, hauek izango dira
AROA markoaren barruan
lehentasunez eragin beharko
diren arloak:

Oharra:

- Ez dago zertan
 lehentasunez eragin
beharko diren arloak
zehaztu, baina komenigarria
izan daiteke eta herritarren
ulermenerako bide ere izan
daiteke. Izan ere, zehaztuz
gero, hurrengo urteotan
aisialdian, kirolean edo
enpresen euskalduntzean
(hauek adibideak baino ez
dira, herri bakoitzak zehaztu
beharko ditu bereak) jarriko
duela udalak azpimarra,
horrek lagundu dezake
AROaren beraren
ulermenean eta AROaren
beraren lurreratzean.